

OÑATIKO MENDI MARTXAKO PARTEHARTZAILE BAKOITZAK HONAKO ARAUDI HAU IRAKURRI ETA ONARTU BEHARKO DU. MARTXA EGUNEAN IZEN BAIEZTAPENERA AGERTZEN DEN ORO ARAUDIA IRAKURRITA ETA ONARTUTA DATORRELA ULERTUKO DA.

IZEN EMATEAK

- Kirolprobak plataforman (www.kirolprobak.com) zein Oñatiko Txokolateixan egongo da izena emateko aukera .
- 1200 parte hartzailearen kopuru muga jarriko da
- Izen ematearen prezioa 15 euro federatuentzat eta 17 euro federatu gabekoentzat izango da azken hauen inskripzioan eguneko aseguruia sartzen delarik.
- Inskripzio kopurua gainditu eta bajarik balego berriro irekiko genuke inskripzio aukera.
- Inskripzio kopurua gaindituz gero egunean bertan ez da inskripziorik onartuko.
- 16 urtetik beherakoen kasuan izen ematea burutu ahal izango da baina email bidez dokumentu bat helaraziko zaio guraso edo tutoreek bete dezaten. Dokumentu hau froga egunean aurkeztu beharko da.
- “Soilik kamiseta” modalitatea aukeratzen duten pertsonak soilik kamiseta eskuratzeko eskubidea izango dute, hau da, egunean bertan ezin izango dute martxan parte hartu eta ezta ere anoa postuak erabili. Kamiseta egunean bertan jaso beharko da Irunberri plazan 11etatik aurrera.

EGUNEKO IZEN BAIEZTAPENA

- Ez da inskripzio agiria aurkeztu beharko hala ere badaezpada mugikorrean izatea gomendatzen dugu.
- Baieztapena Oñatiko plazan egingo da eta mahai ezberdinak egongo dira alfabetikoki zehaztuta inskripzio baieztapena burutu ahal izateko
- Izen baieztapenaren ordutegia martxa luzerako 6:30-7:30 bitartean izango da eta motzerako aldiz 7:30-8:30 bitartean.
- Ibilaldi luzerako azken irteera ordua 7:30 izango da eta ibilaldi motzerako aldiz 8:30rak.
- Partehartzaile bakoitzak inskripzio ziurtagiria jasoko du berak emandako emailean. Jasotzen ez badu onati.mendimartxa@gmail.com helbidera idatzi eta konponduko dugu. Ziurtagiri hau ez da erakutsi beharko baina eskura izatea gomendatzen da edozein gaizkiulertu ekidin asmoz.
- 16 urtetik beherako partehartzaileei email bat bidaliko zaie guraso edo tutoreek onar dezaten eta hau derrigorrezkoa izango da egunean bertan mahaian aurkeztea.
- Baieztapena burutu ostean partehartzaile bakoitzari edalontzi bat emango zaio eta hau nahitaezkoa izango da anoa postuetan edaria hartu ahal izateko.

IRTEERA

- Irteera izen baietapena egin ostean emango dio partehartzaile bakoitzak.

Ibilbide luzea: 7:00/7:30etan

Ibilbide motza: 8:00/8:30etan

- Ez da motxila uzteko kontsigna zerbitzurik egongo

IBILBIDEA

- Ibilbidearen seinalaztapena plastiko eta spray bidez egingo da. Edozein arazo izanez gero antolakuntzaren telefono zenbakiak eskura izango dituzue.
- Txakurrekin parte hartzea erabakiz gero, inguruko persona eta animaliekiko errespetua eskatzen dizuegu eta aldameneko norbait deseroso ikusiz gero gelditzea distantzia batetara egon arte.
- Wikiloc-en igoak ditugun ibilbideak soilik orientatiboak dira beraz hauek norabidea galduz gero soilik erabiltzea gomendatzen dizuegu. Antolakuntzak edozein momentutan ibilbidea aldatzeko eskumena izango du.
- Edozein istripu edo arazo izanez gero Gurutze gorriak-eko lagunak izango ditugu ibilbidean zehar laguntza eskeintzeko prest.

ANOA GUNEA

- Ibilbidean zehar anoa postuak egongo diren arren partehartzaile bakoitzari bere edari eta janaria ekartzea gomendatzen zaio, gogoratu martxa bat dela ez otordu bat eta atzetik jende gehiago egongo dela gose zein egarriz.
- Ibilbide luzean 2 anoa postu egongo dira ibilbide luzearentzat eta bakarra ibilbide laburarentzat. Amaieran luntxa egongo da partehartzaile guztientzat.
- Anoa postuak erabiltzeko beharrezkoa izango da hasieran emandako pultsera jantzita eramatea.
- Izena eman gabe anoa gunek erabiliz gero, hurrengo edizioetan parte hartzea galaraziko zaio.

BAJA EMATEA

- Behin izena emanda ez da dirua itzuliko.
- “Partehartzaile” modalitatean izena emanez gero probari hasiera eman beharko zaio kamiseta eskuratu ahal izateko.
- Partehartzaile” modalitatean izena eman eta ezin bada probara agertu “soilik kamiseta” modalitatara pasa ahalgo da beti ere 2025/09/01 aurretik emailaz adieraziz (onati.mendimartxa@gmail.com).
- Ez da izen aldaketarik onartuko
- Norbaitek beste persona baten izenean parte hartzen badu antolakuntza ez da inola ere arduradun egingo.

AMAIERA

- Kamisetak jasotzeko mahai ezberdinak egongo dira.
- Kamisetaren neurriari dagokionez inskripzioan ezarritakoa emango zaio partehartzaile bakoitzari eta hau aldaezina izango da.
- Behin froga amaituta Irunberri plazatik 100metrora kokatzen den kiroldegian duxak izango dituzue eta bertan emandako jarraibideak errespetatu beharko dira.

